

bidegileak



Imanol Laspiur (1929-1998)

Egilea:

SERAFIN BASAURI

Bizitzako zenbait zehaztasun

Smanol Laspiur Zabala Bergaran jaio zen 1929ko otsailaren 21ean. Aita, Leon, bergararra eta ama, Gumersinda, eskoriatzarra, sei seme-alaba izan zituzten: Kontxa, Maritxu, Sole, Imanol, Edurne eta Itziar. Maritxu urte batekin hil zitzairen. Imanol bi urteko umetxoa zela, 1930ean, finkatu ziren Eibarren. Aitak txistulari plaza lortu zuen Eibarko udalean eta estatistika sailean eta txistulari bandan egiten zuen lan. Gerra ostean, Santandertik bueltan herrira itzuli zirenean ez zioten, jakina, lanerako deitu; udaleko



Imanol Laspiur Zabala (1929-1998)

lana galdu egiten du beraz. Gizon benetalaria eta sentibera zen. Aurrerantzean, industriako langile xehe, orduz kanpoko eskolak ematen zituen solfeoa eta txistua irakatsiz eta txistu-konposizioen batzuk ere egin zituen. Ama, Gumer, oso emakume bizia eta alai.

Euskal Herriko beste edozein herriren antzera, Eibar ere, galtzaile ateratzen da gerratik. Erdiguneko zati handi bat bonbardaketak eta suteak utzitako obra-hondakinez beteta ezagutu izan dugu. Ahaztu ezineko irudiak



Errebal kalea eta Agustinen Komentuko hondakinak, 1939 - Imanol Laspiurren etxetik hurbil

eibartar guztiongan eragin dutenak. Gerra osteko Eibar apurtu eta zanpatu hartan egingo zituen Imanolek lehen eskola urteak, Jazinto Olabe pintore eta maisu handiarekin ikasi zuen dibujoa, gero Armeria Eskolan, sasoi hartan ohikoa zen bezala, industria-maisutza-ko lanbide ikasketak. Euskararen sakontzea, musika, kantua, dibujoa eta pintura, kirola egitea, irakurtzea eta idaztea, mendian ibiltzea zituen gustuko. Bere lehen lan urteak, industrian, tailer-lanetan emango ditu. Tailer-lanak utzi eta argitaldari baten ordezkari izan zuen eta salmenta munduan sartu. Au-

rrerantzean bere lanbidea jardunbide komertziala izango da, material elektrikoa, makina-erreminta eta azkenik material elektriko biltegi bateko gerente, 64 urterekin jubilatu zen arte. Langintza horrek aukera emango dio inguruko errealitate ekonomiko hurbiletik jarraitzeko. Lan profesionalarekin batera, lanorduetatik kanpoko jardun oparoa eman zigun, Herriaren aldeko hainbat zereginetan murgilduta. Ahal izan zuen denbora guztian eskaini zuen bere lana euskararen alde, 1998ko Gabon egunean, 69 urterekin hil zitzaigun arte.



Barrenkalea, Plazido Zuloaga eta Bidebarrieta kaleak San Andres elizaren kanpandorretik ikusita, 1938

Etxekoen eta inguruaren eragina

Eragin sakona izango du familiak Imanolen bizitzan. Behargin, abertzale eta euskaltzale familia. Etxetik zetorkion beharginen aldeko jarrera, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna. Euskaltzale porrokatuak familian, Imanolen bi arreba ere, Kontxa eta Itziar, urtetan jardungo zuten AEKn euskara irakasten gau-eskoletan eta euskaltegian. Familiarendako

eta ezagutu genuen guztiondako zorigaitza: Edurne, bere arreba gazteagoa, 1958an Uli-barri-Ganboako urtegian istripuz hil zen itota. Makinatxo bat isileko bilera egin izan dira Laspiurtarren etxean, Ibarburutzen, ateak zabalik baitzituzten euskararen eta Euskal Herriaren aldeko zereginetarako. Santi Arizmendik, Toribio Etxebarriaren lagun minak, esperanto eskolak ematen zituen *Club Deportivo*-an eta hemen ezagutu zuen Arrate Ibarbutxi emazte eta bidelagun izango zuena,



Etxean Arraterekin. (Letrakit 1991)

oraintsura arte ikastolan andereño jarduna. Hiru seme-alaba: Asier, Lore eta Uxue. Familian beti aurkitu izan du bere ahaleginendako sostengua eta babesa.

Gerra osteko urteak. Gerrako obra-hondakinen gainean Eibar itsusiago bat berreraiki zen. Ego erreka erabat estali eta tailerretako eta etxeetako zabortege bihurtu, Deba ibaira doazen ur zikinok goragotik datorren kutsadura handiagotuz. Industri hazkundera izugarria izan zen 1970. urtera arte. Diru erraza egiteko urteak. Tailer eraikuntzak ordenamendurik eta kontrolrik gabe edozein lekutan jasotzen ziren. Gaizki antolatuturiko hazi behar horrek ekarri zituen ingurumenaren degradazioa eta geureganatu ezineko etorkin uholdeak. Euskarak etorkizun latza zuen.

Etxeko giroan eta inguru horren barnean erneko zitzaion Imanoli euskararen alde borrokatzeko kemena. Neurriren batean, Eibar, gerraostean ere euskaraz bizi zen oraindik. Fabriketan, bulegoetan izan ezik, euskara erabiltzen zen nagusiki; etxe gehienetan egingo zen euskara, kalean normal gizonen artean, baina nesken artean eta neska-mutilen arteko harremanetan gaztelania hutsa, ostera.

Egia esan, ez da oraingoa, aspaldikoa baino, boterearen aldetik gure hizkuntzak jasaten duen minorizazioa gaztelaniaren eta frantzesaren mesedetan eta nabarmena izango da

horren eragina herritarren gehiengoan. Aspalditik zetorren gainbehera areagotu egiten da gerra ostean. Euskarari ematen zitzaion balioa, salbuespenak salbuespen, hutsaren hurrengoa zen. Babesa eta promozioa beharke zuen gure hizkuntza honek, baina egundoko errepresioa jasaten du frankismoarekin. Garai gogorra euskararentzat. Eskoletan, jakina, gaztelania hutsa, euskara zigortua zegoen eta Espainia inperialaren mitoen ezarpena zen orduko giroa eskolan. Elizan ere ez zen berandura arte euskara erabili. Etorkin uholdeak ere zaildu egingo zuen erabilpena.


Horren guztiaren aurrean, gerra osteko guraso belaunaldia ez zen gauza izan euskarari eusteko eta transmisioak porrot egingo du, gainbehera areagotuz. Egoera larria zen. Erbestetik itzuli zeneko Toribio Etxebarriaren hitz hauei darien samina adierazgarria da: *Nun (da) a danen euskeria? / Euskeraz Katekismua, / euskera maittien izketia / ta euskeraz Sozialismua!* herrian ikusi zituen aldaketa izugarriak eraginda idatzitakoak. Ez zen erraza egoera horri aurre egiten, baina egin zitzaion. Imanol Laspiur eta Juan San Martinen inguruan bildu zen lagunarteak eragin handia izango zuen Eibarko euskal kontzientziaren berpiztean. Era batera edo bestera, lan horri ekingo dio Imanolek: euskara berrindartu, erabili, irakatsi, idatzi, eskoletaratu, euskara plazara atera, kontzientziak astindu.

Euskalgintzaren hasiera Eibarren

Gerra ondoren euskararen aldeko lehen pausoak 1952-53 inguruan hasiko dira. Talde lanean ekingo zaio euskalgintzari eta Imanol izango da lagunarte horretan eragiletako bat. Etxe partikular batean bilduz hasiko dira. Euskararen sakontzea helburu, gero irakatsi eta zabaltzeko. Euskal Herriko hainbat talde eta jendekin jarriko dira harremanetan, irakaskuntza esperientziak elkarrekin trukatzeko, Euskal Herriko arazoak aztertzeko edota literaturaz jarduteko. Maria Teresa Urrestarazuren bidez jakingo dute Andoni Urrestarazu

Umandi haren anaiaren berri, 1953an Parisen erbesteratua eta berak egindako gramatika apunte batzuk zituen. Umandi-ren euskal gramatikako apunte horiekin ekingo diote euskal gramatikan sakontzeari. Orixeren *Euskaldunak* 1950ean argitaratu zena ere izan ohi zuten aztergai, garai hartan «poema nazional»tzat zutena.

Taldearen eraginez argitaratu egingo dira Umandi-ren apunteok 1955ean, *Gramatica Vasca, Método para aprender y enseñar el idioma vasco* izenarekin, Koldo Mitxelenak berrikusita eta Urkixo mintegia-ren babespean. Finantzazioa eta zabalkundea bere gain har-



Mitxelenari gutuna euskal eskoletarako babes eske, 1955eko azaroan



Imanol Laspiur, A.Santi Onaindia eta Bittor Kapanaga Arantzazurako bidean, 1956an Euskaltzaleen Biltzara Arantzazun egin zenean



Eibarren, Euskaltzaindiaren ardurapean, 1959ko azaroan, *Euskaltzaleen Biltzarra*, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez egin zenekoa, Mons. Larrañaga Pingliang-eko Apezpiku eta Euskaltzaindiko urgazlea buru zela. 1959-11-06

tuko dute taldean. Liburuak saldu ahala joango dira, bide batez, euskararen beharraz eta garrantziaz kontzientziak pizten eta euskara-
eskolen oinarriak jartzen. Imanol arduratuko da, Koldo Mitxelenaren bitartez *Urkixo mintegia*-ren aldetik, Eibar eta Elgoibarko euskara-
eskolendako nolabaiteko babesla lortzen. Euskal giroa zabalduz zihoan. *Club Deportibon*, baita etxe partikularretan ere, euskara-
ikastaroak jarri ziren abian, maila guztietako hainbat talderentzat.

Ekintza garrantzizkoa izango zuten hauxe: *Euskaltzaleen Biltzarra*, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez izeneko batzarra, hiru egunetan zehar, 1959ko azaroaren 6, 7 eta 8an, Eibarko Udaletxean eta Euskaltzaindiaren ardurapean antolatu eta egin zena. Javier Eguren zen orduan Alkate. Berak egin zuen ongietorria euskaraz. Bi eibartarrek irakurri zituzten beren lanak: Juan San Martinek «Juan Antonio Mogel eta Urkitza bere bizitza eta lanak» eta Jabier Zubiaurrek «Mogel eta

Burdingintza». Harro zen Imanol gure lagun biokin. Honela zioen bere kroniketako batean: «goreneta agertu jakuz etorri jakuzen gizon aundien artian». Udalak kale bati Mogelen izena jartzeko erabakia hartu zuen.

Bagindoazen aurrerapausoak egiten eta euskararendako espazioa irabazten. Lan eta parte hartze akademikoez gainera, bestelako jai eta festak ere egin ziren herriko jendeari begira. Amaya Antzokian Elgoibarko antzerki

taldeak Garitaonaindia zenaren obra eder bat jarri zigun, korua, umorezko bakarrizketa, bertsolariak. Umeen euskara lehiaketa udaletxeko arkupeetan, jendaurrean. Sari-ematea plazan, jende pila ikusle. Gipuzkoako bertsolarien lehen txapelketa egin zen Untzaga plazan, Uztapide txapeldun izan zena. Horren guztiaren erdian murgilduta jardungo zuen Imanolek antolakuntzan eragile, buru-belarri, Juan San Martinekin eta beste taldekideekin batera. Gaurko ikuspuntutik ekintza apala nahi bada, baina, orduan, bere eragina izan zuena. Euskara ezkututik atera eta plazaratzeko ondo baino hobeto etorri zitzaiguna.



Euskaltzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez. Umeen euskara lehiaketa. 1959-11-07



Euskaltzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez. Umeen euskara lehiaketako sari ematen. 1959-11-08

Garaiko borroka politikoan

Batez ere euskararen aldeko konpromisoak eraman zuen borroka politikoan murgiltzera. Imanolek barneratuta izan du beti euskal naziotasunaren eta euskararen arteko uztarketa. Garbi izan du beti, euskararen alde borrokatu beharra, bai agiriko herri ekimenean, bai eta ezkutukoetan. Haren aber-tzaletasunaren sustrai-sustraian zegoen sentimendua zen euskaltzaletasuna, eta Euskal Herriaren aldeko ezkutuko lanera joko du. Kontzientziak iratzarri behar ziren, herri ekimenak bizkortu. Borroka klandestinoan sartu zen *EKIN*en eskutik *Eusko Gaztedi* era-



Euskaltzaileen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez. Umeen euskara lehiaketako sari ematen. 1959-11-08

kundean lehenik eta *ETA*n gero 1958an sortu zenean. Makina bat hara eta hona egingo zituen formazio-ikastaro, berbaldi eta solasaldiak emateko, beti ere, bere euskaltzaletasunarekin koherente, ahal zuen guztian euskara hutsean, informazio iturri gehienak erdaraz egonagatik. Ereduzko jokaera berea. Militante fina.

Nazio mailako ardurak ere izan zituen, eta hor jarraituko du 1961ean preso hartzen



Euskaltzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez. Gipuzkoako I. Bertsolari txapelketako Epaimahaia. Uztapide txapeldun izan zenekoa. Argazkian: Juan San Martin, Aita Zabala, Koldo Mitxelena, Antonio Arrue. Atzean zutik, Imanol Laspiur. 1959-11-08

duten arte. Tortura izugarriak jasan zituen, gorputza goitik behera erabat ubelduta uzte-rainokoak. Hamabost urteko kartzela zigorra jaso zuen. Lau urte egin zituen espetxean, Martutenen eta Carabanchelen lehen hilabeteak, baina Sorian gehiena. Ondo eutsi zion egoera horri, tinko, duintasunez, itxaropenez eta umore onez. Egoerari zegokion kantu bat ere sortu zuen, aitagandik zetor-

kion txistulari-airean esango nuke, denok kantatzen genuena. Kartzelaldi horren ondoren ez du politikan parte-hartze zuzenik izango, ez trantsizio garaian, ez eta harrez gerokoan. Konponbide baketsu, demokratiko, justu eta negoziatuaren aldeko zen. Bere konpromiso abertzaleari ez dio ukorik egingo, baina alderdi eta talde politikoen diziplinatik libre jardungo du.

Ermua-desterrua- -Arantzazuko batzarrak


Gertakizun asko eta esanguratsuak 1968an: maiatzean Paris; Pragako udaberria; ekainean errepide kontrol batean Pardines guardia zibila hila eta ordu batzuetara Etxebarrieta Benta-Haundin, *Gerediaga* elkarteak antolatutako jardunaldiak Ermuan, literatur hizkuntzaren batasunaz; abuztuan Manzanas polizi burua ETAk hil zueneko, salbuespen egoera Gipuzkoan eta desterrua euskaltzale eta abertzale multzo handi batentzat Espainian zehar, Txekoslovakian Errusiako armadaren inbasioa eta tankeak Pragan; urrian izango ziren, Arantzazun, euskararen batasunerako batzarrak.

Arantzazuko batzarretarako prestakizun gisa, Ermuan, literatur hizkuntzaren batasunaz egin zen mintegian, ponentzia interesgarria aurkeztuko zuen Imanolek, «Euskal Joskera» zeritzana, gero, 1968ko *Jakin* 31/32-an argitaratuko zena. Urteak ziharduen euskara-irakasle lanetan eta nabarmen agertzen du euskal joskerarekiko kezka eta zorrotasuna. Orokorrean ados egonik ere, ez zituen *Baionako Biltza-*


rra-ren erabakiak bere osotasunean jarraitzen. «H» letrari baino garrantzi gehiago ematen baitzion hizkuntzaren beste alderdi batzuei. «Bejondeizula Laspiur» atera zitzaion Basarri-ri *La voz de España*-n, haren ponentzia goratuz, bide batez, beste joera batzuei kontra egiteko. Gutxi gorabehera handik hilabetera, desterrura: Granadako Zafarraya herritxo batera. Arantzazuko batzarraren ondoren, berehala onartuko du Euskaltzaindiak emandako gomendioa, batasuna nazio hizkuntzaren garapenerako ezinbestekoa dela ondo barneratua zuen-eta. Euskaltzaindiaren erabakia gizarteratzen jardungo du irmotasunez euskara batuen alde, giro polemiko hartan beharrezko zen zuhurtziaz eta orekaz jokatzuz.

«Euskara idatziaren batasuna», *Jakin* 31/32, maiatza-urria, 1968ko alearen portada





«Euskal-joskera» Ermuko mintegiko ponentzia.
Jakin 31/32, 1968, 39-57 orr



Euskara irakasle

Hogeiren bat urtetan zehar jardun izan du euskarazko ikastaroak ematen. Zabala Aranaren gramatikarekin lehenengo, hurrengo Xabier Peñaren ikasbideekin, gero Umandiren gramatikarekin eta irakasbide honekin jarraituko du, harik eta bere metodoa moldatu zuen arte. Ricardo Arregirekin, euskalduntze-alfabetatzealdi berri bati ekiten zaio eta honetan ere parte hartzen du.

Bere esperientzia handiaz baliatuz, 1968 ingurutik aurrera *Euskara Ikasbidea* deritzon euskara hobekuntzarako metodoa osatuz joango da, euskara batura egokituz zeharo. Makinaz txukun idatzitako 546 orrialde-multzoa utziko digu, gramatikaren arlo guztiak jorratuz, ariketa eta azalpen ugarirekin. Sekulako lana hartu zuen bere gain, bere ikastaroetarako ez baitzuen, orduan, euskara batuan moldaturiko material didaktiko egokirik. Ikasgaiak prestatu eta eman ahala, pixkanaka osatuz egindakoa da. Ikasbide honekin jarraituko du bere irakaskuntza lan emankorrean. Euskara-irakasleak sortuko dira hortik gau-eskoletarako. Morfosintaxia ere landu eta eman zuen irakaskuntzarako. Deba-ibarrean zehar, pare bat urtean jardungo du ikastoletako irakasleei euskara-ikastaro laburrak ematen. AEK modu profesional batean eratu zen arte iraungo zuen horretan. Doan, halako lanak sasoi hartan egiten ziren bezala.

Makinan idatzitako «Euskara Ikasbidea» Imanol Laspiurren euskara hobekuntzarako metodoaren lehen orrialdea. 1968tik aurrera egindakoa


Ikastola mugimenduan

Aitzindari genuen honetan ere. Euskara eskolaratzeko urrats garrantzizko horretan beste eibartar euskaltzaleekin bat eginik. Eibarko ikastolaren sortzaileetakoa izan zen 1960an. Gipuzkoako Ikastolen Federazioko talde bateragileko partaide 1971n, *Guraso Heziketa* sailean. Jo eta su ibiliko da sasoi horretan batetik bestera hitzaldiak ematen, gurasoen


kontzientziak suspertze aldera. Gai horretaz badu lan bat idatzia «Ikastola eta gurasoak» izenburuarekin, 1972ko *Jakin* sorta 6-ko *Gure Ikastola* ale berezian argitaratua. 1973az gero Eibarko ikastolako batzordekide eta 1977an lehendakari. J.A.Mogel Eibarko ikastolaren 25. urteurrena zela eta *Eibarko Ikastolaren Historia Txikia 1960-1994* utzi zigun idatzita.



«Gure Ikastola», *Jakin* sorta 6-1972ko alearen portada.
Imanol Laspiurren lana: «Ikastola eta gurasoak»



Eibarko Ikastolaren Historia Txikia 1960-1994 liburuko portada



Eibarko Ikastolaren Historia Txikia argitaratu zenekoa, 1995eko azaroa



Artikulugile eta hizlari

Idazten hasi zeneko garaian, *Eusko-Gogoa*-n, *Oler*-n, *Mila Euskal Olerki Eder*-en sorkuntza lanen bat edo beste egin izan zituen. Itzulpen lan bat ere badu egina: *Munduan Zehar*. *Haurren Entziklopedia Orokorra*-ren 8. liburukia *Bidaiak eta Esploraketak* deritzona. Baina aldizkari eta egunkarietan artikulua idaztea zuen gustuko, denetariko gaiak paperean jartzeko, beti ere, euskara txukun eta zainduan. Eta hitzaldiak ematea, euskara eta ikastolaren inguruan jendearen kontzientziak iratzartzeko, euskara zabaldu eta ikastola mugimendua bizkortzeko. Idatziz edo jendaurreko hitzaldien bitartez, bere barneko sentimenduak eta iritziak adierazi eta gizartean eragitea zuen helburu.

Artikulugile

Jakin, *Zeruko Argia*, *Eibar*, *Kezka*, *Anaitasuna*, eta *Kitto*, *Egin*, *Euskaldunon Egunkarian* idatzi izan du. Ez da gai bakarreko artikulugilea izan, denetarik idatzi baitu, beti ere zorrotz euskararen alde eta injustiziaren kontra. *Zeruko Argia*-n eta *Egin*-en eman zituen artikulurik gehienak. Jorratu izan dituen gaiak: euskararen gainean, euskaldun kontzeptuaz, euskalduntasunaz, herrietako euskaraz (Oñati, Eibar), euskara batua gizarteratzeko eta haren aldeko ahaleginean, euskaraz egin eta erabili beharraz, toponimiaz; hitzaldi kronikak, liburu iruzkinak; kirola eta manipulazioaz; zahar eta gazteen arteko harremanaz; iritzi artikuluko politikoa, herri soberaniaz, gogorkeriaz, herri zapalduetikiko elkartasunezkoak, eskubideez,



Etxeko langelan (*Letrakit* 1991)

presoen alde, torturaren kontra, manifestazioetako poliziaren jokabidea salatuz; irakaskuntza eta herrigintzaz; maiteak eta miretsiak zituen zenbait lagunen hilberriak; Santi Brouard-en hilketa dela-eta idatzi zuen «Independentzia!» izenburuko artikuluekin jarki egiten da bortizki zapalketaren aurrean, eta auzipean sartzeko saio bat izan zuen, baina deklarazioa hartu zioten arren ez zuten prozesatu. Zapalduetikiko elkartasuna, Euskal Herria eta euskararekiko leialtasuna eta konpromisoa agertu izan ditu beti bere lanean, eta dena bihotza, gertakizunen aurrean bihozkadaka eta sentimenduak eraginda idazten zuen sarri.

Desterruan, Zafarrayan idatzia da San Martin adiskideari igorritako gutuna, *Hegatsez* hitz-lauzko bilduman argitaratua; naturaren deskripzio poetikoa eta itxaropenez betea. Ba-



«Kooperatibak» Jakin sorta 7, 1973ko alearen portada. Imanol Laspiurren lana: «Eibarko "Maquinas de coser Alfa S.A."ko historia»

ditu bere lanen artean, han idatzitako beste bost idatzi argitaratu gabeak.

Eibarko industriaren errealitateaz jabetzeko aukera bazuen eta 1972-73an azaldu zituen bere kezkek *Zeruko Argia*-n, *Eibar* eta *Kezka Club Deportibo*-ko aldizkarietan. Alfako historiari idatzi zuen lana oso ona da, *Jakin sorta-7 Kooperatibak* ale berezian «Eibarko "Máquinas de coser Alfa, S.A.»» izenburuarekin argitaratu zena. Esan behar da bakanak direla Eibarko ekonomiaz eta industriaz euskaraz idatzitako lanak eta horrek egiten ditu interesgarriago.



Zeruko Argia 191, 1966-10-23



Kezka 1976-02 aldizkariko portada, «Gaurko gazteria eta kirolak» artikulua



Egin 1984-11-28, «Independentzia» artikulua




Egin 1985-01-09, «Iñaki Aldekoa, agur eta zorionak» artikulua



Egunakia 1993-03-12, «Ustegabeko heriotza mingarriak» artikulua

Hizlari bikaina

Hizlari bikaina, ahots sendo ederrekoa. Ondo prestaturik eramango zuen azaldu behar zuena, argi eta zehatz. Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan emango zituen hitzaldiak, solasaldiak, eta mahai-inguruetan parte hartuko. Hitzaldietarako gidoi esku-idatziak ere gordeta utzi zituen bere papereen artean eta horri esker dakigu haren ibilien eta erabili zituen gaien berri.



Ikastolaren inguruan emandako hitzaldietako baten gidodia

Hara eta hona jardungo zuen, honako herriotan: Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Mendaro, Deba, Mutriku, Zumaia, Getaria, Azpeitia, Lasarte, Ataun, Errenteria, Lezo, Durango, Bolibar, Zeanuri, Galdakao, Larrabetzu...

Euskarari buruzko gaiak: Gure Herriko kaze-taritzaz, Gizona eta Hizkuntza, Euskara eta euskararen beharra, Gizona, hizkera eta kultura, Rikardo Arregi eta alfabetatzea, Alfabetabidea, Deba ibarreko euskalkia, Euskara Eibarren, «H»-aren erabileraz, Euskara batua gaur-euskara idatzia gaur, Hizkuntza eta Herria, Euskararen geroa gaztetxoeren eskuetan.

Ikastolaren inguruan: Gurasoen heziketa; Ikastola herriaren aurrean; Herria eta ikastola; Giza-emakumeak gaurko euskal gizartean; Gazteria gaurko euskal gizartean; Lege alde-tiko problematika/Legearen erraztasun eta eragozpenak; Zergatik ditu Euskal Herriak ikastolak?; Gurasoen erantzupidea haurren heziketan eta herriaren aurrean; Ama hizkuntzak heziketan duen garrantziaz; Lizeoa; Mahai-ingurua Elgoibarko ikastola berriaren inaugurazioan; Mahai-ingurua Eibar, Elgoibar, Soraluze eta Ermuko ordezkarietara ikastolako arazoez; Ikastolak, Euskal Herriaren izatasuna, Hizkuntza arazoa, Helburuak; Ikastolaz; Euskal Ikastolak.

Elkarrizketak ere egin izan dizkiote: *Argia*-n (626, 1975), *El Correo Español*-en (1991), *El Diario Vasco*-n (1995).

Euskararen aztertzaile



Aukera zuen guztian jarriko zuen agerian euskara batuaren aldeko bere jarrrera, euskara irakasten, lantzen eta idazten. Ez zuen, hala ere, Eibarko euskara gutxietsiko, izugarri maite baitzuen. Ahozkotasanaz kezkatuta, uste zuen herrietako euskara jatorrak ekar zekiokeela euskara batuari, euskara idatziak falta zuen naturaltasuna. Txillardegia, Hualde eta Gaminderen lanak hurbiletik jarraitzen zituen. Azentua, prosodia, herri euskararen nolabaiteko kantua, entonazioa, gai oso garrantzitsuak ziren Imanolentzat. Eibar eta




Okondon 1975eko abuztuaren 17an, «Euskaltzain Laguntzaile» diploma hartzean

inguruko zaharrekin egoteko aukera guztiak baliatuko zituen, belarriak erne, lokuzioren bat, esaldi jatorren bat jasotzeko. Hitzaldiak ere ez ditu gutxi eman Eibarko euskararen edo, orokorrean, Deba Ibarrekoaren ezaugarriak azalduz.

Euskaltzaindian

1975eko ekainaren 27an izendatzen da urgazle eta 1976ko martxoaren 27an irakurriko du «Azentu diakritikoa Eibarko euskarari» bere lan bikaina. Eibarko eta inguruko bizkaieraren azentuaren zenbait alderdi ezagutzeko behar-beharrezkoa. Hitz solteen zerrendak ematen ditu bi ataletan. Baina entonazioan eta prosodian harantzago jo beharra ere ikusten zuen. Hona hemen honetaz zioena: «Azalduko hitzok soilki emanak dira gehien batez, baina interesgarri litzateke, arras, esaldi bat hartuz eta sintaxi aldaketak eginik, hitz bakoitzaren portaera aztertzea era litezkeen sintagma berrien baitan». Azken lana izango zuen gai honi 1998an helduko dio berriro, Eibarko Euskara Mintegiaren eskariz.



Bere paperen artean aurkitutakoak, Euskaltzaindiari igorritako txostenen artean hiru hauek: 1975ean «Euskara Batasunari» buruz; 1977an «Euskara Irakaskuntza Institutoetan» Euskaltzaindiari Ministerioan gestioak egin ditzan eskatuz, Eibar eta Elgoibarko Institutuetako irakaskuntza euskaraz jartzeko; eta hiru, «Mugagabe taxuzko perpausak zenbata-sunezko esaldietan» izenburukoa «I. Jagon Jardunaldietara» eramana komunikabideetan egiten diren akatsen zerrenda luzea.

Eibarko Unibertsitate Laboralean, 1984ko urtarrilean egin ziren *Soziolinguistikako Jardunaldien* sarrerako hitzaldia egingo du, baita 1984/85ean, «Euskara batua/euskalkiak» el-karraldien irekierakoa ere, Eibarko Udalaren Euskara Batzordeak antolaturiko hitzaldietan.



EUSKERA 24-1979.1, Euskaltzaindiaren buletineko separata:
Azentu diakritikoa Eibarko euskarari

Donostiako Diputazio Jauregian, Euskaltzaindian egindako bilera ireki batean

Eibarko euskara mintegian

Udaleko Euskara Batzordearen inguruan era-tua den *euskara mintegian* parte hartuko zuen talde laneko ekimen guztietan.

Eibarko euskararen ezaugarriak ...*eta kitto!* he-rrri aldizkarian argitaratzen joan zen 72 lantxo-oren bitartez, denak bikainak; gero, 1999an, ... *eta kitto!* elkarteak *Eibarrera jatorraren bidetik* deritzon liburuxka batean bildu zituenak.

Gaur egun, gazteen artean euskararen erabi-lera gehitu baldin bada ere, Eibarko euskara-ren etorkizunarekin ezkor, kezkatuta zegoen gazteen arteko ahozkotasurekin, entona-zio arrotzarekin. Makinatxo bat ahalegin egin

izan ditu, zaharrendik euskara jatorragoa-ren ereduak jasotzen, lokuzioetan eta ento-nazioan, euskara batua bera ere aberasteko delako ustean.

Ordenadorean utzi zigun Eibarko euskara mintegiak eskaturiko azken lana: «Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua». Esan behar da, deklinabidearena arazorik gabe hartu zuela beregain, baina ez, ordea, entonazioaren gaia, zailtasun gehiegi aurki-tzen ziola-eta. Hala ere, gure pozerako, en-tonazioarena ere egina zuen, 1976an egiteke



Euskara Euskalkiak Eibar 1985 liburuko portada

Euskara batua-Euskalkiak elkarraldien irekierako hitzaldian, 1984ko abenduaren 26an

utzi zuenari helduz. Bere irakasle senari jarraituz, ukitu didaktiko handiarekin 15 entonazio arau ematen ditu, erraz ikasi eta jarraitzekoak, 13 entonazio kurba eta 45 adibide eibarrerazko entonazio petoan.

Entonazio jatorrak hizkera zuzenarekin ere lotzen gaitu. Horregatik Imanolen ahalegina kontu honetan. Izan ere, entonazioa hizkeraren doinua da eta doinua beti izan da lagungarri «letra» gogoratzeko. Lan honek ez du, beharbada, Eibarko azentuaz eta entonazioaz dena azalduko, baina ikasi gura duenak badauka darabilgun azentu arrotza zuzentzeko adina arau eta adibide.

Euskalkien azentu-erak aztertzen ari diren hizkuntzalarientzat material polita Imanol Laspiurrek utzi diguna. Deklinabidea lantzen jardundako eguna 1998ko ekainaren 23a zuen eta ekainaren 24a entonazioarena. Hutsa falta zitzaion lanari azkena emateko, baina ezin izango zuen, sei hilabetera justu joango zitzaigun eta. Bi data horietan eteten da euskararen aldeko haren jardun aberatsa. Eibarko Udalaren Euskara Zerbitzuaren eskutik argitaratu ziren bi lanak *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua* izenburuko liburu batean, 1999an.

Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua liburuiko portada

Utzi digun ildoa


Ezagutu dugunontzat ahaztu ezina. Euskaltzale fina, euskararen biziraupenaz kezkatua eta euskaltzale den heinean abertzalea. Eragile eta ekintzaile. Euskararen eta ikastolaren alde sekulako ordu pilak emandakoa. Langile amorratua, ordenatua eta zehatza. Iritzi tinkodun gizona baina behar zenean malgu izaten zekiena. Samurra, hurrekin, adinekoekin eta maite zituenekin. Gazteekiko zabal eta animatzaile. Kortesia arau formalak betetzen gu gehienok baino estuagoa. Kirola, artea eta natura maitalea. Erromantiko, ameslari eta idealista handia, zentzurik onenean utopikoa. Bere garaiko herri-egoerari, arriskuak arrisku, behar zuen erantzuna eman ziona. Pertsona maitatua izan da Imanol, koloreak kolore, guztion aldetik.

Eibarrera jatorraren bidetik liburuiko portada



Hark egin eta plazaratu zituenak agertu ditut. Horien xehetasunak argiago azter litezke, utzi zituen paper eta esku-idatzietan, Udal Artxi-boan hiru karpetatan gordeak direnak. Material benetan polita, garai horretako euskalgin-tzaren gainean arakatu nahi duenarentzat.

Utzi digun ildo hor dago. Guri dagokigu ildo horretan barrena ekinean jarraitzea. Egin dena ez da gutxi. Euskarak eman duen aurre-rakada sekulakoa da. Aurrera pauso handiak egin ditu, azken 35 urteotan. Euskara idatzia-ren batasuna egintzat eman liteke neurri han-di batean. Literaturan, itzulpengintzan, komu-nikabideetan, irakaskuntzan, unibertsitatean, Administrazioan, urrats handiak eman dira.



Imanol Laspiurren paperak udal artxi-boan

Ez dago ukatzerik. Herri-mugimendua, Eus-kaltzaindia eta Administrazioa, horien guztien arteko lanak eman du fruiturik. Bai horixe.

Hala ere, ikaragarria da egiteko dagoena, es-parru guztietan. Euskaltzaindian: euskara ba-tuaren ahozketasuna arautu eta prosodia egoki baterako neurriak hartzeko, aspaldi sa-marretik datozkigun euskara mintzatuaren ajeei aurre egiteko, euskara batua euskal-kiekin uztartzeko. Irakaskuntzan: ikasle eta irakasleen euskara maila hobetzeko, batez ere euskara mintzatuaren maila hobetzeko. Komunikabideetan: euskara eredu onak se-gurtatzeko. Administrazioan: euskara espa-zioak irabaziz erabilera gehitzeko. Borroka latza, beraz, jokatzeko duguna: irakaskuntzan, Administrazioan, zerbitzuetan, produkzioan..., euskara esparru guztietan erabilia izan dadin. Horiek guztiok gutxi bailiran, euskararen kontrako eraso politikoari aurre egiteko neurri sendoak hartu beharko dira.

Euskarari eutsi eta aurrera egiteko, denon parte-hartze bateratua beharko da. Denona, herritarrona eta erakundeena. Eta boluntario-lanean jarduteko eskuzabaltasuna ere berres-kuratu beharko. Zeregina badago beraz, baita lanerako indarra eta prestakuntza ere. Katea ez da eten. Dena beharko da, baina, inoiz bai-no gazteria prestatuagoa dugu eta etorkizuna-ri esperantzaz aurre egin ezinik ez dago.

Horiek dira Imanolek utzi dizkigun ondarea, kezak eta eginkizunak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Laspiur-Ibargutxi familiari
- Jose Valderrey argazkilariari, argazki-bilduma honen antolaketan egindako lan eskerzagatik
- Yolanda Ruiz Eibarko Udalaren artxibozainari
- Begoña Azpiri Eibarko Udalaren itzultzaile eta Egoibarra Batzordeko teknikariari
- Eibarko Club Deportiboari
- *El Correo* eta *Deia* egunkariei

Zuzendaritza: Mikel Atxaga
Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua: 3.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.
Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN: 84-457-2370-7 (Lan osoarena)
84-457-2373-1
L.G.: BI - 3287-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística